

NATURA

Petrolio berdeak

Azkenaldian biokarburanteak modan daude, nahiz eta kaltegabeak diren oraindik erabat frogatuta egon ez. "Petrolio berdea" pil-pilean dago bazter guztietan. Suediako Stokholm hiriburuan ardoari ateratako etanola erabiltzen ari dira automobiletan eta Alemania, Frantzia zein Italiako hiri handietan



Errefinategi honetan etanolaren eratorriak ekoizten dira.


koltzaren esterra edo erremolatxa, gari eta abarren etanolaren eratorriak gero eta gehiago darabiltzate garraiorako. Gasolinari produktu oxigenatuak eransteko ideia gero eta maiteago dute botere publikoek. Hala ere, biokarburanteak ez dira hain "berdeak". Koltzaren esterrak, adibidez, ohizko

karburanteek baino % 10 sodio oxido gehiago kanporatzen du. Erremolatxari eta gariari ateratako etanolak, berriz, minbizi-sortzaile izan daitezkeen azetaldeido gehiago uzten du erreta. Aipatu berri ditugun esterrak eta etanolak, gainera, motorearen ihes-tutuan formaldehido sor dezakete, minbizi-sortzaile izan daiteke.

Indiak hondamendiaren arriskua du

Euriak huts egiten badu, Indiako populazioaren zati handi bat gosez hil daiteke. Delhiko Fundazio Ekologikoak eta Erresuma Batuko Food Group koalizioak Indiako egoera kezkarria azaltzen duen erreportaje bat argitaratu dute. *In the Famine Trap* izeneko ikerketak dienez, Asiako herrialde honetan gosete larri bat zabalteko arriskua dago. Jendez gainezka dauden lurraldeak eta soroen degradazioak Indiako janari erreserba hondatzen ari dira.

"Indian montzoi txar bat edo bi ematen badira krisialdi ikaragarria etorriko da". Devinder Sharma adituaren hitz hauek esanguratsuak dira guztiz. Sharmak gaineratu duenez, arazo larriena Punjab eta Haryana nekazaritza-erregiotako lurzoaren degradazioa da. Ur-eska-



Euriak huts eginez gero, arazo larriak ezagutuko dira Indian. Jendez gainezka dauden lurraldeak eta soroen degradazioak Indiako janari erreserba hondatzen ari dira.

siak nekazaritza-ekoizpena egoera tamalgarririan utz dezake. Indian bost urtetik beharako umeen erdiak desnutrizioa du *Unicef*eko datuen arabera. Montzoiak huts eginez gero, milioika haur gosez hilko dira.

Kaimanen egoera larria

Brasilgo laku eta ibaietatik kaimanak desagertzen ari dira. Animalia hauei buruzko azterketa sakon batek azaldu duenez, ehiza, urre-meatzaritza eta industri garapena dira narrasti hauen suntsiketaren errudunak. Brasilgo kaiman askok, gainera, beruna dute muskulu-ehunean, oso arriskutsua izanik beraien osasunerako. Datu kezkarriak plazaratu ditu *Amphibia-Rep-*

tilia aldizkariak. Amazoniako lurraldeetan kaiman beltza bizi zen 47 eremuetatik 41etan desagertu da. Kaiman arruntaren egoera ez da larria, 39 gunetatik lau eremutan soilik desagertu baita. Amazoniako lurraldeetatik kezkarriena Rondoniako da (Bolivia ondoan), bertan animalia hauek bizi irauteko zailtasun ugari dago eta. Ikertzaileen iritziz, kaiman-populazioa ez dago erabat galdurik, baina neurri batzuk hartu beharko dira; ehiza mugatu beharko litzateke habitat naturalen suntsiketa eragozteko eta teknologia berriak erabili beharko lirateke industriak eta meatzari-tzak sortzen duten poluzioa murrizteko.

Brasilgo laku eta ibaietatik kaimanak desagertzen ari dira. Egoera kezkarriena Rondoniako da



BERRIAK LABUR

Kakalardo bitxiak
Eskoziako baserrietan

Baserrietako habitatak erreserba naturalak baino egokiagoak dira zenbait kakalardoentzat. Garth Foster eskoziarrak eta bere taldeak 190 kakalardo-mota aztertu dituzte eta ondorio interesgarrietara iritsi dira. Esaterako, landutako soroetan kakalardo handiak ugari daude eta espezie gehiago aurkitu dituzte baserrietan erreserba naturaletan baino. Baserrietako kakalardoaren artean nagusi omen dira arruntak ez diren espezieak; erreserbetan, aldiz, kakalardo arruntak omen daude ugari.

Baserrietako habitatak erreserba naturalak baino egokiagoak dira zenbait kakalardoentzat.



Dena dela, Mike Usher, Eskoziako Natur Ondareko zientzilarien burua, ez dago erabat ados ikerketa honen ondorioekin. Usherrek dioenez, entomologoek denbora gehiago eman

dute erreserba naturalak ikertzen. Horrez gain, kakalardo batzuk oharkabean pasatzen dira eta ikertzaileek aurkitzean mota bitxiaren zerrandan jartzen dituzte.

EEBBtako poluzio-arauetarako buruzko eztabaida

Saharako basamortuko hautsak eta ozeanoetako uhin-aparraren gatzak EEBBtako poluzioa areago dezakete. Honen aurrean, ingurugiroa aztertzen diharduten zientzilariek batzuek esan dute EEBBtako poluzioari buruzko arauak aldatu egin behar direla.

Amerikako Birikaren Elkarteak ekintza legal bat jarri zuen martxan EEBBtako Ingurugiroa Babesteko Agentziaren aurka. Epaitegiak auzi-jartzaileari eman dio arrazoa eta 1997ko ekainetik aurrera eskatutako arau berriak praktikan jarri beharko dira.

Aldaketen artean eztabaidagarriena PM2,5 partikularen emisioa murriztea izan da. Ikerketa epidemiologikoen azaldu dutenez, mota honetako partikulek birikako minbizia eta bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua handitzen dute. Zientzilariek batzuk, dena dela, arau berriak aplikatu direnez ez dira fidatzen, arau gogorregia bada industriek epaitegitara jo



Saharako basamortuko hautsak eta ozeanoetako uhin-aparraren gatzak EEBBtako poluzioa areago dezakete. Arauak aldatu beharraz hitz egiten ari dira.

eta erraz berraldatuko dutela uste baitute.

Saguzarren birusa
Australian


Australiako biztanleek kontu handiz ibili beharko dute hemendik aurrera saguzarrak bizi diren inguruetan. Emakume batek errabia du saguzar fruitujale batek harramazka egin ondoren. Saguzar hauek errabia zabal dezaketela eta, milaka fruitu-biltzaile eta basozainek errabiaren aurkako txertoa hartu beharko dute.

Gaixo dagoen emakumea nahikoa egoera larrian dago. Hasierako sintomak hauek izan ziren: paralisia beso eta hanketan, sukarra eta goitikak. Gerora, entze-falitisa ere, zerebroaren hantura, izan du. Emakume hau Queensland estatuko Rochampton hirikoa da eta bertako beste emakume bat ere ospitalean dago, saguzar



batek kosk eginda hau ere.

Saguzar arriskutsu hauek *azeri hegalaria* izenez ezagutzen dira eta milioika daude Australian. Birusak kutsatzeko arrisku handian daude fruitu-biltzaileak, sagu-



Australian emakume batek errabia du saguzar fruitujale batek harramazka egin ondoren. Izua hedatzen ari da bertan.

zar hauek fruituak eta loreak jaten baitituzte. Australiako osasun-agintariek neurriak hartu nahi dituzte eta kutsatze-arriskuan dauden guztiak txertatu. Biologoek, bestalde, birusa beste bi saguzar-espezie ere kutsa dezaketela uste dute.

